



“Emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” azaroaren 25eko adierazpen instituzionalaren onarpena.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko oinarriekin, ‘Istanbuleko Hitzarmena’ delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.

Honez gain, azaroak 25, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eta indarkeriaren alderi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna da, indarkeria matxista lirake: ukitzeak, ahozko lizunkeriak, jotzea, psikologikoki zigortzea, etab. Sexismoa: publizitate eta mass-mediek emakumeen gorputzari ematen dieten erabilerak, mezu eta adierazpenak, janzkera, jendarte sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, etab patriarkatua: ekonomia kapitalista, politika ordezkatzaileak, familia eteropatriarkala, hierarkia bidezko hezkuntza, etab.

Emakumearen askatasuna bermatzeko, kontzeptuak argi izatea ezinbestekoa da, azken finean, kontzeptu guzti hauek gizarte osoa aldatu behar diren garrantzia gogorarazten digutelako. Baina gizarte aldatzeko kontzeptuak argi izateaz gain barnetasun iraultza bat izatea era beharrezkoa dugu. Iraultza indibidual eta kolektiboa. Bakarrik, modu honetan egingo bait diegu aurre beldurraren bidezko domestikazioaren ondorioz hartu ditugun jarrera hauei.

Esan dezakegu urte luzetako lanari esker lortutako berdintasun formala ez dela nahikoa une honetan, patriarkatuak milaka urtetan izan duen agintea ezin da urte gutxitan aldatu, ala ere aurrera jarraitu behar dugu, mikro eta makroindarkeria guztiak identifikatuz eta indarkeria sortzen duten eragileak banan-banan agerian utziz. Eta erantzukizuna emakumeen gainean jarri ordez, beren burua babesteko eta ez arriskatzeko eskatzen baitiegu, edozein eraso sexista sorrarazteko edo saihesten laguntzeko gai diren gizonen gainean jarriz.

Berdintasunetik gertuago dagoen beste maskulinitate bat eraiki beharra, jendarte heteropatriarkal hau eraldatu beharra eta subjektibitatea aldatzea aldarrikatu nahi dugulako, emakume eta gizonen buruzko balioespenetan oinarritutako hierarkizazioak ezabatuz.

Aurrekoaz gain eta Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Bergarako Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.

Horregatik guztiagatik, Bergarako Udalak honako mozio hau aurkeztu nahi du hitzarmenaren neurri zehatz batzuekin batera onartua izan dadin:

1. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.

2. Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.
3. Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzea emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.
4. Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.
5. Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.
6. Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.
7. Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.
8. Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskatilen eskubideak.
9. Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizaziorako ekintza soil gisa.
10. Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarritz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.
11. Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.
12. Gai honetan beharrezkoak diren neurrien finantzaketa bermatzeko mekanismo zehatzak ezartzea.
13. Bergarako Udalak 2017ko aurrekontuetan berdintasun-partida handitzeko konpromisoa hartzen du, aurrekontu orokorrak izango duen igoeraren neurri berean edo handiagoan igoz.
14. Bergarako Udalak, tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, aurrez dagokion lanketa eginda, prebentzioko herriko plan integrala garatuko du, indarkeria matxistaren adierazpide guztiei aurre egiteko modukoa, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.

15. Bergarako Udalak, tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, eraso matxisten kontrako protokoloa osatuko du, dagokion lanketa egin eta lehen arreta egiten duten eragileen formakuntza eta koordinazioa kontuan hartuz, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.
16. Bergarako Udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.
17. Erakunde honetatik, hau da, Bergarako Udaletik, emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.
18. Erakunde honetatik, hau da, Bergarako Udaletik, azaroak 25eko ekitaldietan parte hartu duten herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu eta urtean zehar egingo diren beste mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen diegu.”